



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2023ko abenduaren 15a

48. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### F S A I L A :

#### Galderak:

- 11-23/PES-00212. Galdera, euri- eta kazkabar-ekaitzek ukitutako udalerriei buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (3. or.).
- 11-23/PES-00213. Galdera, Gerra Zibilean Errepublikaren hegazkinen bonbardaketen biktima zibilei errekonozimendua emateko ekitaldiei buruzkoa. Iñaki Iriarte López jaunak egin du (4. or.).
- 11-23/PES-00214. Galdera, Rural Domus proiektu pilotuari buruzkoa. Carlos Guzmán Pérez jaunak egin du (4. or.).
- 11-23/PES-00215. Galdera, Airearen Kalitatea Hobetzeko Planari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (5. or.).
- 11-23/PES-00216. Galdera, esnearen produkzio-kostua kalkulatzeko aplikazio informatiko bat ezartzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (7. or.).
- 11-23/PES-00217. Galdera, Tafallako suhiltzaile-etxe berriaren lanen lizitazioari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (8. or.).
- 11-23/PES-00218. Galdera, 4/2022 Foru Legean jasota datozen tokiko partaidetza duten sorkuntza berriztagarrirako proiektuei buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (9. or.).
- 11-23/PES-00219. Galdera, tokiko partaidetza duten sorkuntza berriztagarrirako proiektuetarako lursailen poltsa bat sortzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (10. or.).
- 11-23/PES-00220. Galdera, NEKPan biltzen diren Nafarroako Gobernuako enpresa publikoetako lehen hartzarmen kolektiboa negoziatzeko batzordeari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (10. or.).
- 11-23/PES-00221. Galdera, Nafarroako enpresa publikoek Arau-hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzen duen otsailaren 20ko 2/2023 Legea betetzeari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (11. or.).
- 11-23/PES-00222. Galdera, Telefónicaren enplegu-erregulazioko espedienteak Nafarroan izan lezakeen eraginari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (12. or.).
- 11-23/PES-00223. Galdera, "Identifikazio biometrikoko Wallet-a" ezartzeko aukera aztertzeo proiektuari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (12. or.).

- 11-23/PES-00224. Galdera, Nafarroako Gobernuaren, Buenos Airesko Unibertsitatearen eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren arteko hitzarmenari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (13. or.).
- 11-23/PES-00225. Galdera, Merkatuko Aurrekontsultari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (14. or.).

**G SAILA:**

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabakia, emakumeen kontrako indarkeriaren biktimei buruzkoa (15. or.).

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**11-23/PES-00212. Galdera, euri- eta kazkabar-ekaitzek ukitutako udalerri buruzkoa**

*MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko abenduaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, euri- eta kazkabar-ekaitzek ukitutako udalerri buruzkoa.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Irailaren 14ko prentsa-ohar batean, Nafarroako Gobernuak iragarri zuen Lurralde Kohesiorako Departamentuak foru agindu bat emanen zuela euri- nahiz kazkabar-ekaitzek zer herri kaltetu dituzten mugatzeko.

a) Lurralde Kohesiorako Departamentuak zer epe ezarri dio bere buruari foru agindu hori emateko?

Iruñean, 2023ko azaroaren 27an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

## 11-23/PES-00213. Galdera, Gerra Zibilean Errepublikaren hegazkinen bonbardaketen biktima zibilei errekonozimendua emateko ekitaldiei buruzkoa

*IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko abenduaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak egindako galdera, Gerra Zibilean Errepublikaren hegazkinen bonbardaketen biktima zibilei errekonozimendua emateko ekitaldiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Iñaki Iriarte López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion:

Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuak ziur al daki Franco jeneralaren diktaduran zehar omenaldi edo errekonozimendu-ekitaldi berariazkorik egin izana Errepublikaren abazioak Gerra Zibilean egindako bonbardaketa terroristetako biktima zibilei? Departamentuak ba al daki biktima horiei oroitzapenezko arkitektura-elementurik eskaini ote zitzaizkien?

Iruñean, 2023ko azaroaren 27an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

## 11-23/PES-00214. Galdera, Rural Domus proiektu pilotuari buruzkoa

*CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko abenduaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako galdera, Rural Domus proiektu pilotuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérez jaunak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enplegu Kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Orain dela gutxi prentsaren bidez jakin genuen Josefina Arregui Klinikak eta Iruña-Tuterako San Juan de Dios ospitaleak Rural Domus proiektu pilotua aurkeztuko zutela Iruñeko Civican-en. Proiektu horrek, zeina La Caixa Fundazioaren eta Caja Navarra Fundazioaren Innova programak finantzatzen baitu, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enplegu Departamentuaren babesa du, eta, zabaldu zenaren arabera, bere helburu nagusia da mendekotasuna duten nagusiendako etxeko zaintzak hobetzea foru-erkidegoko landa-eremuetan, pertsona erdigunean jarriko duen laguntza integrala eskainiz.

Zertan datza Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuak Rural Domus proiektu pilotuari emandako babesa?

Ba al da bestelako akordio edo hitzarmenik Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuaren eta Rural Domus proiektu pilotua kudeatu edo sustatzen duten entitateen artean? Hala baldi bada, zein da, labur esanda, edukia?

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuak zer balorazio egiten du Rural Domus proiektu pilotua eta gisako ekime-

nak ezartzeko gizarte- edo herritar premiari buruz? Ba al dago gisa horretako proiektu bat ezartzeko premia berresten duen txosten, analisi edo diagnosirik?

Nola bete nahi da Rural Domus proiektu pilotuaren helburu nagusia, hau da, mendekotasuna duten nagusiendako etxeko zaintzak hobetzea foru-erkidegoko landa-eremuetan, pertsona erdigunean jarriko duen laguntza integrala eskainiz?

Iruñean, 2023ko azaroaren 28an

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

## 11-23/PES-00215. Galdera, Airearen Kalitatea Hobetzeko Planari buruzkoa

*ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko abenduaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, Airearen Kalitatea Hobetzeko Planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkeztu dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakizkion:

Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak, 410/2021 zenbakiko epaian, 2021eko abenduaren 23an baietsi zuen Erriberako Ekologistak Martxan (Landazuria) elkarteak aurkeztutako demanda. Zuzenbideko bosgarren oinarrian eta epaitzan aitortu zuen "Foru Administrazio demandatuak ozonoak kutsatutako Nafarroako Erriberako airearen kalitatearen nahitaezko planak lehenbailehen egin eta

onartzeko duen betebeharra, betiere epai hau ematen denetik urte zibila amaitu baino lehen".

Prozeduran, Ekonomia Zirkularraren eta Uraren Zerbitzuak emandako txostenaren bidez, ziurtatu zen Funesen, Tuteran eta Erriberin 2011-2016 bosturtekoan landarediaren babesari dagokionez egindako neurketetan balioak gaititu zirela; era berean, 2011tik 2015era bitarte giza osasuna babesteko balio objektiboa gaititu zen Funesen, Tuteran eta Erriberin.

Epai hori eman zen elkarte horrek Nafarroako Gobernuari Erriberako Airearen Kalitatea Hobetzeko Plana premiaz har zezan 2019ko maiatzaren 24an egindako eskaera administrazio-isiltasunez ezetsi izanaren aurka jarritako errekurtsio batean.

Laburbilduz, alegatzen zuen hala 2011-2016 bosturtekoan nola 2014tik 2018ra gaititu egin zirela giza osasuna babesteko troposferako ozonoaren maila objektiboak.

Era berean, aipatzen zuen 34/2007 Legea garatzen duen Airearen kalitatea hobetzeari buruzko urtarrilaren 28ko 102/2011 Errege Dekretuaren 24.1. artikulua airearen kalitateko planak egiteko betebeharra ezartzen diela autonomia-erkidegoei. Eta bere errekurtsioan nabarmendu zuen Nafarroako Gobernuak bi urte baino askoz atzerapen handiagoa izan duela Nafarroako Erriberako airearen kalitatea hobetzeko planak egin, onetsi eta gauzatzeko, Erriberan aireko ozono-mailek lege ezarritako balio objektiboak gaititu baitituzte.

Elkarte ekologistaren iritzian, "jokabide ardura-gabea da, eta Erriberako herritarren osasuna arriskuan jartzen ari da, bai eta landarediaren, laboreen eta ekosistemen kontserbazioa ere".

Gatazka horren konponbidean, Auzitegi Gorenaren 2020ko ekainaren 22ko epai batean oinarritu zen Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Sala, eta, beraz, doktrina horren arabera, "jada ezin da ulertu Nafarroako Foru Komunitateak ez duela airearen kalitatea hobetzeko plan bat egiteko betebeharririk harik eta Estatuak plan nazional bat egiten duen arte».

Elkarteak argudiatu zuen muga-balioak gainditu zirela, eta, aitzitik, Foru Gobernuak adierazi zuen, Funesko estazioak emandako datuak erreferentzia gisa hartuta –eskatutako baldintzak betetzen dituen bakarra–, 2014-2018 bosturtekoaren batezbestekoak ez duela gainditzuten arauz ezarritako muga.

"Argi dago Airearen Kalitatea Hobetzeko Plan bat behar dela erreferentzia-balioak gainditzuten badira, eta Airearen Kalitatea Hobetzeko Plan bat egitea beharrezkoa den jakin eta baloratu ahal izateko, Administrazioak araudiaren araberako neurketa-estazioak instalatu beharko ditu, erreferentziatzko balio objektiboak gainditzuten diren ala ez egiaztatu ahal izateko", ondorioztatu zuen Salak, eta gaineratu zuen Administrazioak "inola ere" ezin duela modu baliagarrian argudiatu bere jarduerarik eza –neurketa-estaziorik ezarri ez delako– Airearen Kalitatea Hobetzeko Plan bat egiteko betebeharra ez betetzeko.

Epai hori betez, 2022. urtean, Gobernuak airearen kalitatea hobetzeko planaren proposamen bat egin zuen, eta Gobernu Irekiaren webgunean

aurkeztu zen, jendeak parte har zezan, 2022ko apirilaren 1etik apirilaren 30era bitartean.

Parte-hartze publikoko prozesu horren ondorioz, 2023ko ekainaren 17tik abuztuaren 22ra bitartean jendaurrean jarri zen Ozonoak Nafarroan kutsatutako airearen kalitatea hobetzeko planaren ingurumen-azterketa estrategikoa, eta administrazio eskudunei jakinarazi zitzaizen, hala bazegokion, jasotako ekarpenak gehitu ondoren, Nafarroako Gobernuak onar zezan.

Horrenbestez, honako galdera hauek aurkezten ditut, idatziz erantzun dakien:

1.- Epaiak Gobernuak behartzen zuen "lehenbailehen" –eta betiere epaia eman zenetik urtebeteko epean– Erriberako ozono-maila hobetzeko airearen kalitate-plan nahitaezkoak egitera. Zer jarduketa egin du Gobernuak epai hori betetzeko?

2.-Zehazki, Gobernuak noiz onetsiko du Airearen Kalitatea Hobetzeko Plana, kontuan hartuta joan den abuztuan amaitu zela Planaren ingurumen-azterketa estrategikoari ekarpenak egiteko epea?

3.- Epaia eman zenetik, airearen kalitatea hobetzeari buruzko urtarrilaren 28ko 102/201 Errege Dekretuan landa-estazioetan makroezarpen-irizpideak betetzen direla bermatzen duten eta Funeskoarekin alderatuta desberdinak diren zenbat neurketa-estazio ezarri dira? Erriberako zein herritan daude?

4.-Estazio berri horiek erabilera eta kontrol publikokoak dira, ala entitate pribatuek kudeatzen dituzte?

Iruñean, 2023ko azaroaren 30ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

## 11-23/PES-00216. Galdera, esnearen produkzio-kostua kalkulatzeko aplikazio informatiko bat ezartzeari buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko abenduaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, esnearen produkzio-kostua kalkulatzeko aplikazio informatiko bat ezartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakizkion:

Esnetarako behien sektoreak krisialdi jarraitu bizi du duela hamarkada batzuetatik, eta ustiategi asko errentagarritasun-atalasetik behera daude, sektorean ez baita ezohikoa ekoizpena kostu-prezioaren azpitik saldu behar izatea.

Abeltzaintza-sektoreak etengabe egin behar die aurre baliabideen eta kostuen kudeaketa eraginkorrari lotutako erronkei. Testuinguru horretan, esnearen ekoizpen-kostua kalkulatzeko berriaz diseinatutako tresna berritzaile bat abian jarri du Kataluniako Generalitateko Ekintza Klimatiko, Elikadura eta Landa-agendako Departamentuak, Abeltzaintzako kudeaketa telematikoa aplikazioan txertatua. Aurrerapen hori aurrerapauso handia da nekazaritza jasangarriago eta ekonomikoki bideragarriago baten alde.

Tresna –ekimen aitzindaria– Abeltzaintzako kudeaketa telematikoa aplikazioaren barruan dagoen modulu bat da, zeinari esker abeltegiek modu eraginkor, intuiziozko eta konfidentzian kalkulatu dezakete esnearen egiazko ekoizpen-kostua. Helburua da ekoizleei eraztea esnea ekoizpen-kostutik gorako prezioan saltzea, abeltegien itxiera ekidite aldera.

Modulu horrek negoziatorako formula garden eta fidagarria eskaintzeaz gain, esnetarako behien sektoreko kostuen gaineko kontrol handiagoa ematen du, eta ekoizpen-etekinak optimizatzen ditu.

Tresna hori, Generalitateak azaldu duenez, kate osoan banaketa ekitatiboagoa bultzatzeko asmoarekin sortu da; izan ere, sektorean sinesgarritasuna eta negoziatio-indarra eskaintzen dituen formula bat eskaintzen du, eta, aldi berean, ekoizpen-kostuaren kontrol handiagoa izateko aukera ematen die ustiatzei, eta, horrela, ekoizpen-etekinak optimizatzeko aukera ematen die.

Era berean, tresnak berebiziko zeregina du elikadura-kateari buruzko 16/2021 Legearen beteetzea egiaztatzeko. Elikagaien Kontratuen Kontrola (\*CADECAT) eta Elikagaien Informazio eta Kontrolerako Agentzia (\*AICA) agintariei aukera ematen die sektoreko jardunbideak modu eraginkor goan ikuskatzeko.

Horrenbestez, honako galdera hauek aurkezten ditut, idatziz erantzun dakien:

1.- Ezagutzen al du Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak Kataluniako Generalitateko Ekintza Klimatiko, Elikadura eta Landa-agendako Departamentuak esnearen ekoizpen-kostua kalkulatzeko ezarritako tresna?

2.- Aurreikusi al du Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak tresna informatikoren bat ezartzea Nafarroako abeltzaintza-sektorean esnearen ekoizpen-kostua kalkulatzeko?

3.- Gaur egun, zer mekanismo erabiltzen du Nafarroako Gobernuak Elikadura Kateari buruzko 16/2021 Legea betetzen dela kontrolatzeko eta, bereziki, Nafarroako abeltzaintzako instalazioetan ekoiztutako esnea ekoizpen-kostuaren azpitik saltzeko?

4.- Zenbat ikuskapen egin du Departamentuak esnearen salmenta kontrolatzeko, betiere prezioa ekoizpen-kostua baino txikiagoa izan gabe?

Iruñean, 2023ko azaroaren 30ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

## 11-23/PES-00217. Galdera, Tafallako suhiltzaile-etxe berriaren lanen lizitazioari buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko abenduaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, Tafallako suhiltzaile-etxe berriaren lanen lizitazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakizkion:

Nafarroako Gobernuak, Barne Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, iragan otsailean iragarri zuen AdC Arquitectos enpresari esleitu zaiola Tafallako suhiltzaileen parke berria eraikitzeko obren

proiektuaren idazketa. Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilari zen Remírez jaunak adierazi zuenez, aurreikuspena zen obrak lizitatu eta obren kontratua esleitu ondoren aurtengo uztailetik aitzina hastea obrak.

Harrezkero ez da horri buruzko inolako informaziorik eman, eta ez da ezagutzen obrak noiz lizitatuko diren.

Horrenbestez, honako galdera hauek aurkezten ditut, idatziz erantzun dakien:

1.- Zergatik ez dira oraindik lizitatu Tafallako suhiltzaileen parke berriaren obrak?

2.- Ogasun Departamentuak ba al du erantzukizunik lizitazio horren atzerapenean, obrak finantzatzeko behar den aurrekontu-gaikuntzaren gaineko arazoak direla-eta?

3.- Ba al da obrak lizitatu ahal izateko behar adinako aurrekontu-partidarik?

4.- Noizko aurreikusten duzue obren lizitazioa eta obren hasiera?

Iruñean, 2023ko azaroaren 30ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

## 11-23/PES-00218. Galdera, 4/2022 Foru Legean jasota datozen tokiko partaidetza duten sorkuntza berriztagarriko proiektuei buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko abenduaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, 4/2022 Foru Legean jasota datozen tokiko partaidetza duten sorkuntza berriztagarriko proiektuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakizkion:

Klima Aldaketari eta Energia Trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legearen 36. artikulua arautzen ditu tokiko partaidetza duten sorkuntza berriztagarriko proiektuak (2022ko apirilaren 1eko NAO); halakotzat jotzen dira "egiaztatzen dutenak zalantzarik gabe parte hartzeko aukera eman dietela, proiektuaren jabetzaren % 51n gutxienez, instalazioa kokatu nahi den udalerriko edo udalerrri mugakideetako pertsona fisikoei edo juridikoei –publiko edo pribatuei–, eta gutxienez % 20ko partaidetza eraginkorra lortzen dutenak".

Artikulu horrek ezartzen du ezen aipatu artikuluko 2. eta 3. apartatuetan aurreikusitako tokiko

partaidetzarako eskaintza "nahitaezkoa" izanen dela "sorkuntza berriztagarriko proiektua lurzoru publikoan dagoenean".

Horregatik guztiagatik, 4/2022 artikulua horretan aurreikusitako proiektuek ukituak izan daitezkeen departamentuek (gutxienez Garapen Ekonomiko eta Enpresariala, Landa Garapena eta Ingurumena, edo Lurralde Antolamendua kudeatzen dutenak) honako galdera hauei idatziz erantzutea nahi dugu:

1.- 4/2022 Foru Legea indarrean sartu zenetik, zuek dakizuela, energia berriztagarrien zenbat proiektu izapidetu dira Nafarroan jabetza publiko lursailetan (baimena lortze aldera Gobernuan izapidetuak izateagatik edo horren izapidereen batean parte hartzeagatik)?

2.- 4/2022 Foru Lege horren 36. artikulua 2. eta 3. apartatuetan ezarritako baldintzetan, sorkuntza berriztagarriko zenbat proiektu izapidetu dira Nafarroako Gobernuan? Zenbaten berri izan du Nafarroako Gobernuak horien izapidereen batean parte hartzeagatik?

3.- Zer erakunde publiko edo toki-entitate ziren proiektu horiek kokatu diren edo proiektatu diren lursailen jabeak?

4.- Nafarroako Gobernuak dakienez, proiektu horietako zenbatetan eman da parte hartzeko aukera modu frogagarrian proiektuaren jabetzaren % 51n gutxienez, instalazioa jarri nahi den udalerrian edo udalerrri mugakideetan kokatutako pertsona fisiko edo juridikoei, publiko zein pribatuei, baldin eta gutxienez % 20ko partaidetza eraginkorra lortu badute?

Iruñean, 2023ko abenduaren 4an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

## 11-23/PES-00219. Galdera, tokiko partaidetza duten sorkuntza berriztagarriko proiektuetarako lursailen poltsa bat sortzeari buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko abenduaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, tokiko partaidetza duten sorkuntza berriztagarriko proiektuetarako lursailen poltsa bat sortzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakizkion:

Klima Aldaketari eta Energia Trantsizioari buruzko 4/2022 Foru Legearen 36.7 artikulua ezartzen duenez (2022ko apirilaren 1eko NAO), "Nafarroako Gobernuak bere kontura edo toki erakundeekin elkarlanean lursailen poltsa bat sortuko du, eta lursailen jabeek eskuragarri jartzen ahalko dituzte artikulua honetan araututako energia berriztagarrien proiektuak garatzeko. Foru-lege honen erregelamenduzko garapenak prestakuntzarako eta sarbiderako irizpideak eta betekizunak arautuko ditu".

Hori guztia dela eta, Nafarroako Gobernuak honako galdera hauek idatziz erantzutea nahi dugu:

1.-Noizko aurreikusten du Gobernuak 4/2022 Foru Legearen 36.7 artikuluan aurreikusitako lursailen poltsa sortzea?

2.-Noiz onetsiko du Gobernuak lursailen poltsa hori osatzeko eta bertara sartzeko irizpideak eta baldintzak arautuko dituen erregelamendu bidezko garapena?

Iruñean, 2023ko abenduaren 4an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

## 11-23/PES-00220. Galdera, NEKPan biltzen diren Nafarroako Gobernuko enpresa publikoetako lehen hitzarmen kolektiboa negoziatzeko bartzordeari buruzkoa

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko abenduaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, NEKPan biltzen diren Nafarroako Gobernuko enpresa publikoetako lehen hitzarmen kolektiboa negoziatzeko bartzordeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren

babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zer egunetan eratu zen NEKPn biltzen diren Nafarroako Gobernuko enpresa publikoetako lehen hitzarmen kolektiboa negoziatzeko ba-

tzordea? Nork osatzen du batzorde hori eta zenbat bilera egin du batzordeak gaur arte?

Iruñean, 2023ko abenduaren 5ean

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

---

## **11-23/PES-00221. Galdera, Nafarroako enpresa publikoek Arau-hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzen duen otsailaren 20ko 2/2023 Legea betetzeari buruzkoa**

*CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko abenduaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Nafarroako enpresa publikoek Arau-hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzen duen otsailaren 20ko 2/2023 Legea betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako enpresa publikoetan zer egin da Arau-hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzen duen otsailaren 20ko 2/2023 Legea betetzeko (ezarritako ekintzak, ekintza horiek zer egunetan egin diren eta gaur arte jasotako salaketak)?

Iruñean, 2023ko abenduaren 5ean

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

## 11-23/PES-00222. Galdera, Telefónicaren enplegu-erregulazioko espedienteak Nafarroan izan lezakeen eraginari buruzkoa

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko abenduaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, Telefónicaren enplegu-erregulazioko espedienteak Nafarroan izan lezakeen eraginari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxi-

kita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Abenduaren 4an (astelehena) Telefónica telekomunikazioetako multinazionalak enplegu-erregulazioko espediente bat iragarri zuen, Espainia osoan enpresaren 5.000 langile baino gehiago ukitu ahalko lituzkeena; haietatik 36, Nafarroan.

1.- Nafarroako Gobernuak kontakturik izan al du enpresarekin, jakite aldera aipatu enplegu-erregulazioko espedienteak zer eragin izan lezakeen Nafarroan?

2.- Nafarroako Gobernuak aukeraren bat aurkeztu al du lanpostu horien galera ekiditeko?

Iruñean, 2023ko abenduaren 5ean

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

## 11-23/PES-00223. Galdera, “Identifikazio biometrikoko Wallet-a” ezartzeko aukera aztertze proiektuari buruzkoa

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko abenduaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, “Identifikazio biometrikoko Wallet-a” ezartzeko aukera aztertze proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxi-kita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

1.- Zertan da “Identifikazio biometrikoko Wallet-a” ezartzeko proiektua, herritarrek Nafarroako Foru Komunitatearekin egiten dituzten administrazio-prozeduretan identifikatzeko eta sinatzeko sistema gisa?

Iruñean, 2023ko abenduaren 5ean

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

## **11-23/PES-00224. Galdera, Nafarroako Gobernuaren, Buenos Airesko Unibertsitatearen eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren arteko hitzarmenari buruzkoa**

*ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko abenduaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, Nafarroako Gobernuaren, Buenos Airesko Unibertsitatearen eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren arteko hitzarmenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako lehendakari María Chivite eta Unibertsitateko, Berrikuntzako, eta Eraldaketa Digitaleko kontseilari Juan Cruz Cigudosa Buenos Airesko Unibertsitateko errektore Ricardo Gelpirekin eta Zientzia eta Teknikako idazkari Sebastián Ceballerorekin bildu ziren, Nafarroak talentua erakarri eta atxikitzekeko estrategiaren baitan, eta, ondoren, 2022ko abenduaren 12an, iragarri zen hitzarmen bat sinatu behar zela Nafarroako Gobernuaren, Buenos Airesko Unibertsitatearen eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren artean. Bertan definituko ziren alde bakoitzaren intereseko esparruak, zeinetatik nabarmendu zituzten energia biltegitratzea eta berriztagarrietarako materialen ikerketa eta biomedikuntza, bereziki adimen artifiziala historia klinikoa erabiltzea.

1.- Hitzarmena sinatu al da? Baiezkoan, horren kopia jaso nahi dut.

2.- Talentuaren trukerik izan al da bi komunitateen artean bilkura horren ondotik, "oso emankorra" izanen zela iragarri baitzen? Baiezkoan, zehaztu zertan izan den.

Iruñean, 2023ko abenduaren 5ean

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

**11-23/PES-00225. Galdera, Merkatuko Aurrekontsultari buruzkoa****ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko abenduaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, Merkatuko Aurrekontsultari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako Departamentuak, Errealitate Sozialaren eta Politika Sozialen Plangintzarako eta Ebaluaziorako

Behatokiaren bidez, otsailean Merkatuko Aurrekontsulta bat abiarazi zuen, gaixoa ardatz duen arretaren arloan Nafarroako Gobernuaren sektore publikoak estaltzen ez dituen beharrezko erantzute aldera. Epea joan den martxoaren 3an amaitu zen.

Berrikuntzaren Erosketa Publikorako proiektuaren izena da "Jokabide disruptiboak detektatzeko sistema integratu bat garatu eta ezartzea, aldeztatik trebatutako adimen artifizial batetik abiatuta zentroetan dauden pertsonengan jokabide horiek detektatu, igarri eta haiei aurrea hartuko diena".

1.- Zenbat proposamen aurkeztu ziren Merkatuko Aurrekontsultara? Aurkeztutako informazioaren kopia.

2.- Zehazki, zer fasetan dago gaur egun proiektua?

3.- Bideragarria izanen al da proiektu hori?

4.- Baiezkoan, noizko aurreikusten dute hurrengo fasera (lizitazioa) aurreratzea eta zer epe eta aurrekontu izanen ditu proiektuak?

Iruñean, 2023ko abenduaren 5ean

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabakia, emakumeen kontrako indarkeriaren biktimei buruzkoa**

2023ko abenduaren 11n eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako Parlamentuak bere babesa eta elkartasuna adierazten dizkie biktimei guztiei, eta bere arbuio osoa adierazten du emakumeen kontrako indarkeria-mota oro dela-eta.

2. Nafarroako Parlamentuak bereziki gogoan ditu eraildako emakume guztiak.

3. Nafarroako Parlamentuak aitortzen du gizonen eta emakumeen arteko berdintasun eraginkorra erdietsi beharra dagoela, indarkeria-mota ororen adierazpenak amaiazarazi ahal izateko, eta konpromisoa hartzen du elkarrekiko errespetuan oinarritutako berdintasunezko harremanen defentsan lan egiteko.

4. Nafarroako Parlamentuak elkarretaratze isila egingen du "EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI EZ" goiburupean bere egoitzaren atarian, 12:00etan, genero-indarkeriaren biktimei bat dagoen bakoitzean, gisa horretako ekintzekiko gaitzespenaren erakusgarri eta gizarte bidezkoago eta berdintasunezkoago bat eraiki beharra aldarrikatzeko. Elkarretaratze horietara borondatez joaten diren parlamentari guztiak errespetatu beharko dute adostutako goiburu hori, eta ezin izanen da bestelakorik erakutsi.

5. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

